

2021. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2020ko irailaren 25ean izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2020/10/06. 192. zk.

ZUHAITZAK MOZTEKO LIZENTZIARI DAGOKION TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

1. Artikulua. OINARRIA

Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 21. artikulua xedatutakoa gogoan izanda, Lurzoruaren Legearen 178. artikulua egurra ebakitzeko lizentzia ematea eskatzen dauela kontuan hartuta eta udal administrazioko edo titularidadeko bideen erabilera berezia arautzen dauen udal ordenantzak ezarritakoarekin bat etorruta, Bermeoko udalerrian Ordenantza honetan agertzen diran arauak arautuko dabe zuhaitzak mozteko lizentzia emateari jagokoa tasea.

2. Artikulua. EGITATE EZARGARRIA

Tasa honen egitate ezargarria izango da udal jarduera teknikoa edo administratiboa, mendi publiko zein pribatuetan zuhaitzak moztu eta gero bide publikoetatik egurra arrastan eramateko lizentzia emateko garatzen dana.

3. Artikulua. SALBUESPENAK

Legezko xedapenen batean ezarritako salbuespenak eta hobariak baino ez dira izango aplikagarriak.

Dana dala, lizentzia eskatzen dabenean eskatu eta justifikatu beharko dabez.

4. Artikulua. SUBJEKTU PASIBOA

1.- Tasa honen subjektu pasiboak dira lizentzia eskatzen dabenean pertsona fisiko zein juridikoak eta egurra moztu eta arrastan daroenak, beharrezko lizentzia eskatu barik lana burutu dabenean.

2.- Dana dala, subjektu pasiboaren ordezkotzat hartuko dira ebakitze lanetako kontratistak.

3.- Subjektu pasiboakaz solidarioki erantzungo dabe mozketak egiten diren etxaldeetako jabeek edo eukitzaileek, eta baita errentadunek be. Honeen kasuan, halan izango da, euren baieztatzeko adierazia edo isilbidezkoagaz eta eskubidea urratu barik egin bada mozketak.

5. Artikulua. TASAREN KUOTA

- 1.- Lizentziako zenbateko finkoa izango da tasaren kuota. **96,43** eurotan ezartzen da.
- 2.- Lizentzia emon jakola interesdunari udalak jakinarazten ez deuteson bitartean uko egin leikio honek espresuki eskabideari, eta, orduan, lizentzia hori emotean ordaindu behar izango ebanaren % 50ean gutxituko zaio tasa.
- 3.- Ustiaketak kaltetutako baso-pisten, saka-bideen, udal errepideen eta beste elementu komunen egoera egokia bermatzeko fidantzea ipini beharretik kanpo eskatuko da tasea.

6. Artikulua. SORTZAPENA

- 1.- Tasaren sortzapena eta ordaindu beharra lizentzia eskatzen dan momentuan hasten da, edo lizentziarik lortu barik mozketak eta arrastea egiten denean.
- 2.- Sortzen eta likidatzen diren kuotak zuzenean ingesatuta ordainduko dira, Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskapen Ordenantzan modalidade honetarako ezarritakoa kontuan izanda.